



**CONVENTION TRIPARTITE DE COLLABORATION ENTRE L'INSTITUT BASQUE ETXEPARE,  
L'INSTITUT CULTUREL BASQUE (EKE)  
ET LE ROCHER DE PALMER**

**ENTRE LES SOUSSIGNÉS**

D'une part, l'Institut Etxepare, représenté par sa Directrice, Mme M. Aitzpea Goenaga Mendiola, conformément aux compétences attribuées par le Décret 151/2010 du 1er juin (n°105 du Bulletin Officiel du Pays Basque du 4 juin 2010) désignant le Directeur de L'Institut Basque Etxepare, et conformément aux dispositions de l'article 18 du Décret 88/2008 du 13 mai 2008 approuvant le Règlement d'organisation et de fonctionnement de l'Institut Basque Etxepare.

D'autre part, M Patrick Duval, titulaire de la carte d'identité n° 130333207733 , directeur de Musiques de Nuit et du Rocher de Palmer, et intervenant en accord avec les statuts approuvés en son Assemblée Générale statutaire du 30 avril 2014.

D'autre part, M Pantxoia Etchegoin, titulaire de la carte d'identité n° 070164101494, directeur de l'Institut Culturel Basque (ICB/EKE), et intervenant en accord avec les statuts approuvés en son Assemblée Générale statutaire du 23 mars 2013.

Les parties interviennent en vertu de leur fonction, et déclarent posséder la compétence légale pour la formalisation de ce document.

**PRÉAMBULE**

1. Considérant que l'Institut Basque Etxepare est un organisme public de droit privé, à la personnalité juridique propre, créé sous la protection de la Loi 3/2007 du 20 avril sur la Création et la Règlementation de cet Institut, habilité à remplir ses propres objectifs et rattaché au département compétent en matière de culture du Gouvernement Basque. Conformément à l'article 3.b) de la Loi 3/2007 du 20 avril 2007, les objectifs de l'Institut Basque Etxepare sont «Le soutien à la promotion et à la diffusion de la Culture Basque dans l'une des deux langues officielles à l'extérieur de la Communauté Autonome Basque et quel que soit le format, le support, le moyen et le mode d'expression utilisé, en encourageant et en diffusant plus particulièrement l'offre culturelle en langue basque».
2. De même, considérant que l'article 4.1.e) de la Loi 3/2007 du 20 avril 2007 sur la Création et la Règlementation de l'Institut Basque Etxepare établit que l'Institut Etxepare a pour mission « la mise en œuvre d'actions et de stratégies de promotion de la Culture Basque à l'extérieur de la Communauté Autonome Basque, l'encouragement de la circulation extérieure des artistes et des œuvres artistiques, et la diffusion de la connaissance du patrimoine artistique basque, par le soutien et l'appui plus particulièrement de l'offre culturelle créée en langue basque».
3. L'Institut culturel basque (ICB/EKE) a été créé en 1990 pour soutenir la langue et la culture basques, par le biais de projets artistiques menés par ses 160 associations membres, ou au travers de ses projets fédérateurs allant du patrimoine jusqu'au spectacle vivant en passant par des programmes fédérateurs tels que Kantuketan, Batekmila, Eleketa et plus

récemment Hogeí'ta. Parmi ses objectifs, l'ICB veut développer tant les relations transfrontalières que la diffusion de la culture basque, en Aquitaine et dans le monde.

4. Le Rocher de Palmer est un équipement culturel consacré aux musiques du monde, favoriser leur diffusion et leur connaissance, à travers des concerts, des expositions, des rencontres thématiques, un centre de documentation, etc.

Il a été convenu ce qui suit :

#### **Article 1.-** Objectif

Continuer à encourager la diffusion de la culture basque en dehors de la zone géographique où elle évolue, afin de permettre à d'autres populations de découvrir ou de mieux connaître ses aspects les plus significatifs. Concrètement, il s'agit de mettre en place un programme de musique basque au Rocher de Palmer de Cenon (33) durant l'année 2015.

#### **Article 2.-** Activités

La mise en œuvre de l'objectif exposé ci-dessus se fera dans le cadre du programme "Musique Basque á Bordeaux". À cet égard, les signataires veulent collaborer pour organiser un programme consistant en :

- a) une programmation musicale avec minimum 3 concerts de groupes basques.
- b) une résidence-workshop de musique traditionnelle d'une semaine.
- c) le programme pourra s'accompagner d'autres actions se rapportant à la culture basque: une exposition photo, une conférence, et un évènement littéraire dans le cadre de la foire littéraire Bordelaise de novembre.

#### **Article 3.-** Obligations des signataires.

L'**Institut Etxepare** s'engage à :

- Collaborer dans ce programme en apportant une aide financière de 5000 euros TTC.
- Les artistes pourront solliciter les subventions d'Etxepare pour les frais de logement et voyages.
- Diffuser sur tous ses supports de communication l'information du festival.

L'**Institut Culturel Basque (ICB/EKE)** s'engage à :

- Collaborer dans ce programme en apportant une aide financière de 2 500 euros TTC.
- Apporter des conseils artistiques sur le contenu de la programmation.
- Diffuser sur tous ses supports de communication l'information du festival.

**Le Rocher de Palmer** s'engage à :

- Régler les cachets aux artistes.
- Assurer l'ingénierie et la gestion de tous les aspects techniques et financiers des concerts, ateliers et expositions.
- Diffuser sur tous ses supports de communication l'information du festival.
- Insérer le soutien de l'Institut Basque Etxepare et de l'Institut culturel basque sur tous les supports de communication évoquant le festival.

#### **Article 4.-** Modalités de versement de la contribution financière

Le paiement de cette contribution financière de l'Institut Etxepare s'effectuera en deux versements au Rocher de Palmer, échelonnés comme suit :

- Le premier versement sera d'un montant de deux mille cinq-cents euros (2.500 €), et s'effectuera au premier trimestre 2015 ;
- Le deuxième versement se fera à la fin du programme, soit en décembre 2015, et son montant s'élèvera à deux mille cinq-cents euros (2.500 €). Ce paiement s'effectuera sous réserve d'une justification de la réalisation de tous les concerts et activités prévus dans l'article 2, sous forme d'une attestation signée par Le Rocher de Palmer. Un bref bilan de ce festival devra être envoyé avant ce versement.

Le paiement de la contribution financière de l'Institut Culturel Basque s'effectuera en deux versements au Rocher de Palmer, sur présentation d'une facture et échelonnés comme suit :

- Le premier versement sera d'un montant de mille deux cent cinquante euros (1 250 €), et s'effectuera au premier trimestre 2015.
- Le deuxième versement se fera à la fin du programme, soit en décembre 2015, et son montant s'élèvera à mille deux cent cinquante euros (1 250 €). Ce paiement s'effectuera sous réserve d'une justification de la réalisation de tous les concerts et activités prévus dans l'article 2, sous forme d'une attestation signée par Le Rocher de Palmer. Un bref bilan de ce festival devra être envoyé avant ce versement.

#### **Article 5.-** Durée

Cette convention prendra effet à sa signature, et sera valable jusqu'au 31 décembre 2015.

Elle pourra cependant expirer avant la date initialement prévue, si l'une des trois parties en fait la demande. Cette résiliation sera effective après expiration d'un délai de deux mois à compter de la demande formelle effectuée à l'autre partie.



#### **Article 6.-** Non-exécution de la convention

En cas de non-respect par Le Rocher de Palmer d'une des obligations résultant de la présente convention ou de toute autre disposition la rendant indispensable, l'Institut Basque Etxepare et l'Institut culturel basque pourront résilier cette convention, étant dès lors libérés de tout engagement préalable.

En cas de non-respect par l'Institut Basque Etxepare ou l'Institut culturel basque d'une de ses obligations, le Rocher de Palmer pourra résilier cette convention, étant dès lors libérée de tout engagement préalable.

#### **Article 7.-** Comité de suivi

La coordination, la révision et l'évaluation des activités réalisées dans le cadre de cette convention seront sous la responsabilité d'un comité qui sera formé à cette occasion. Ce comité sera constitué d'un nombre égal de représentants des trois parties, l'Institut Etxepare, l'Institut Culturel Basque EKE, et le Rocher de Palmer, et ses membres seront Mme Maria Aitzpea Goenaga, Pantxoia Etchegoin et Patrick Duval.

Le comité aura des échanges occasionnels dans le but de développer une collaboration.

#### **Article 8.** -Règlement et interprétation de la convention

Tout litige sur l'interprétation résultant de l'exécution de cette convention sera dans un premier temps résolu par le comité de suivi.

En cas de non résolution des litiges survenus, les parties saisiront une commission d'arbitrage qui sera composée de 4 personnes. Chaque partie désignera un arbitre, le quatrième étant nommé conjointement.

La présente convention est établie en trois exemplaires, en français et basque, et signée par les parties, à Bordeaux, le 31 octobre 2014.

La Directrice de l'Institut Basque Etxepare

Maria Aitzpea Goenaga Mendiola

Le Directeur de l'Institut Culturel Basque EKE

Pantxoia Etchegoin

Le Directeur de Le Rocher de Palmer

Patrick Duval



## **LANKIDETZA HITZARMENA ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA, EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA ETA LE ROCHER DE PALMER ARTEAN**

### **BILDURIK**

Batetik, M. Aitzpea Goenaga Mendiola andrea, Etxepare Institutuaren zuzendaria, Institutu horren izenean eta ordeztan, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria izendatzen duen ekainaren 1eko 151/2010 Dekretuak (EHAaren 105 zk., 2010eko ekainaren 4koa) eman zizkion ahalmenekin bat eta Etxepare Euskal Institutuaren antolaketa- eta jarduera-araudia onartzen duen 88/2008 Dekretuaren, maiatzaren 13koa, 18. artikulua xedatutakoarekin bat.

Bestetik, M. Patrick Duval jauna, 130333207733 NA zenbakiduna, Musiques de Nuit eta Rocher de Palmer aretoko zuzendari gisa, haren izenean eta ordeztan aritzeko eskumena duena, 2014ko Apirilaren 30an burututako Batzar Orokorrean onartutako estatutuen arabera.

Eta bestetik, M. Pantxo Etchegoin jauna, 070164101494 NA zenbakiduna, Euskal Kultur Erakundearen (EKE) zuzendari gisa, haren izenean eta ordeztan aritzeko eskumena duena, 2013ko Martxoaren 23an burututako Batzar Orokorrean onartutako estatutuen arabera.

Bi aldeek beren karguaren arabera jarduten dute, eta dokumentu hau formalizatzeko gaitasun legal nahikoa dutela adierazten dute. Hori horrela,

### **AZALTZEN DUTE**

1. Etxepare Euskal Institutua zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Etxepare Euskal Institutuaren Sortze eta Arautzeari buruzko apirilaren 20ko 3/2007 Legearen babesean sortutakoa, berezko nortasun juridikoa duena, bere xedeak betetzeko jardute gaitasuna daukana, eta Eusko Jaurlaritzan kultura arloan eskuduna den sailera atxikita dagoena. Etxepare Euskal Institutuaren helburuak dira, apirilaren 20ko 3/2007 Legearen 3.b) artikulua arabera «Euskal Kultura bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adieraz moldetan kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta hedatuz».
2. Halaber, Etxepare Euskal Institutua Sortzeko eta Arautzeko apirilaren 20ko 3/2007 Legearen 4.1.e) artikulua xedatzen du Etxepare Institutuaren jardura dela «Euskal kulturaren sortze-lana kanpoan sustatzeko ekintzak eta estrategiak gauzatzea, artisten eta artelanen kanpoko zirkulazioa bultzatzea eta euskal ondare artistikoaren ezagutza zabaltzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta bermatuz».
3. Euskal Kultur Erakundea (ICB/EKE) 1990ean sortu zen euskara eta euskal kultura sustatzeko, erakundeko kide diren 160 elkarteek burutzen dituzten proiektu artistikoen bidez, edo bere proiektu federatuen bitartez, ondare kulturalaren zainketa zuzeneko emankizunetara doana, Kantuketan, Batekmila, Eleketa eta berriki Hogeita bezalako programa federatuetatik igaroz. Bere helburuen artean, EKEk mugaz gaindiko harremanak garatu nahi ditu, eta baita ere euskal kultura zabaltzeko, Akitanian eta mundu osoan.

4. Le Rocher de Palmer kultura gune edo ekipamendu bat da, munduko musikei zuzendurikoa, hauen zabalkundea eta ezagutza sustatzen duena kontzertu, erakusketa eta topagune tematikoak antolatuz, eta dokumentazio gune baten bitartez.

Halatan, bada, aldeek honakoa adostu dute:

### **1.Artikulua.-** Helburua

Euskal kulturaren ezagutza bere berezko eremutik harago zabaltzeari bultzada ematea, beste herri batzuek kultura honen alderdirik adierazgarrienen gaineko ezagutza izan eta sakon dezaten. Zehazki, 2015. urtean zehar euskal musika programazio bat antolatzea Bordele kanpoaldean dagoen Rocher de Palmer, Cenon (33) aretoan.

### **2.Artikulua.-** Ekintzak

Goian aipaturiko helburua “Musique Basque á Bordeaux-Euskal musika Bordelen” jaialdiaren baitan gauzatuko da. Horretarako, sinatzaileek elkarlana burutuko dute honako ekintza hauek bilduko dituen programazio bat antolatzeko:

- a) Gutxienez hiru euskal musika talderen emanaldiak bilduko dituen programazioa.
- b) Aste-beteko euskal musika tradizionaleko erresidentzia-ikastaroa.
- c) Programa honetan euskal kulturarekin loturiko honako ekintza hauek ere ospatu ahal izango dira: argazki erakusketa, hitzaldia, literatura ekimen bat Bordeleko azaroko liburu azokan.

### **3.Artikulua.-** Sinatzaileen betebeharrak.

#### **Etxepare Institutuaren** engaiamenduak:

- Programan honetan parte hartzea gehienez 5.000 euroko diru-laguntza emanez.
- Artistek diru-laguntza eska diezaioke Etxepareri ostatu eta bidaia gastuetarako.
- Bere komunikazio euskarri guztien bidez festibaleko ekintzen zabalpena egitea.

#### **Euskal Kultur Erakundearen (ICB/EKE)** engaiamenduak:

- Programan honetan parte hartzea gehienez 2.500 euroko diru-laguntza emanez.
- Programazioan aholkularitza artistikoa ematea.
- Bere komunikazio euskarri guztien bidez festibaleko ekintzen zabalpena egitea.

#### **Le Rocher de Palmer** kulturgunearen engaiamenduak :

- Artistei katxetak ordaintzea.
- Kontzertu, ikastaro, erakusketa etab.en arlo tekniko eta finantzazkoak antolatzeaz arduratzea.
- Bere komunikazio euskarri guztien bidez festibaleko ekintzen zabalpena egitea.
- Etxepare Euskal Institutuaren eta Euskal Kultur Erakundearen lankidetzaz berariaz aipatzea festibalarekin loturiko komunikazio euskarri guztietan.

#### **4.Artikulua.-** Diru-ekarpenak ordaintzeko modua :

Etxepare Euskal Institutuaren ekarpena bi zatitan egingo da, Le Rocher de Palmer-i zuzenduriko bi ordainketa bidez, hemen azaltzen den moduan:

- Lehenengo ordainketa, bi mila eta bostehun eurokoa izango da (2.500 €), eta 2015eko lehen hiruhilabetean egingo da.
- Bigarren ordainketa bi mila eta bostehun eurokoa izango da (2.500 €), eta programa amaitzen denean egingo da, hau da, 2015eko abenduan. Ordainketa hau 2. artikuluan aipatzen diren kontzertu eta ekintza guztiak egin direla ziurtatzen duen ziurtagiri bat aurkeztu ondoren egingo da, Rocher de Palmer-ek sinaturikoa. Festibal honen memoria labor bat ere igorri beharko du ordainketa honen aurretik.

Euskal Kultur Erakundearen ekarpena bi zatitan egingo da, Le Rocher de Palmer-i zuzenduriko bi ordainketa bidez, hemen azaltzen den moduan :

- Lehenengo ordainketa, mila berrehun eta berrogeita hamar eurokoa izango da (1.250 €), eta 2015eko lehen hiruhilabetean egingo da.
- Bigarren ordainketa mila berrehun eta berrogeita hamar eurokoa izango da (1.250 €), eta programa amaitzen denean egingo da, hau da, 2015eko abenduan. Ordainketa hau 2. artikuluan aipatzen diren kontzertu eta ekintza guztiak egin direla ziurtatzen duen ziurtagiri bat aurkeztu ondoren egingo da, Rocher de Palmer-ek sinaturikoa. Festibal honen memoria labor bat ere igorri beharko du ordainketa honen aurretik.

#### **5.Artikulua.-** Iraupena

Hitzarmena sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2015eko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Bestela ere iraungi ahal izango da, hiru alderdietako batek hitzarmenaren amaiera iragarrita. Horretarako, amaitutzat jo baino gutxienez bi hilabete lehenago formalki jakinarazi beharko dio beste alderdiari.

#### **6.Artikulua.-** Hitzarmena ez betetzea

Le Rocher de Palmer-ek zehaztutako betebeharrak edota beste xedapen batek orokorrean ezinbestekotzat ezartzen duen beste edozein baldintza bete ezean, Etxepare Euskal Institutuak eta Euskal Kultur Erakundeak hitzarmena salatu ahal izango dute, eta une horretatik aurrera bete beharko lituzketen konpromisoak betetzetik aske geratuko dira.

Etxepare Euskal Institutuak edo Euskal Kultur Erakundeak zehaztutako betebeharrak edota beste xedapen batek orokorrean ezinbestekotzat ezartzen duen beste edozein baldintza bete ezean, le Rocher de Palmer-ek hitzarmena salatu ahal izango du, eta une horretatik aurrera bete beharko lituzkeen konpromisoak betetzetik aske geratuko da.



## **7.Artikulua.-** Jarraipen batzordea

Hitzarmen honen esparruan egingo diren jarduerak koordinatzeko, berrikusteko eta ebaluatzeko ardura izango duen batzordea osatuko da. Etxepare Institutuak, Euskal Kultur Erakundeak, eta le Rocher de Palmer -ek kide kopuru berdina izango dute batzordean eta, Maria Aitzpea Goenaga, Pantxoa Etchegoin et Patrick Duval izango dira bertako kide.

Batzorde honek aldaketak izan ditzake lankidetzaz garatzeko helburuz.

## **8.Artikulua.** - Hitzarmenaren erregimena eta interpretazioa.

Hitzarmen hau betetzerakoan sor litezkeen interpretazio-auziak hasiera batean jarraipen-batzordeak konponduko ditu.

Baldin eta sortutako auziak konpondu ezin izango balira, alderdiek arbitraje talde batengan utziko dute erabakia, 4 pertsonaz osatua egongo dena. Alderdi bakoitzak arbitro bat aukeratuko du, eta laugarrena hiruen artean adostutakoa izango da.

Eta dagozkion ondorioetarako hala jasota gera dadin, eta adostasuna adierazteko, honako hitzarmenaren hiruna ale sinatu dituzte aldeek, frantsesez eta euskaraz, eta ondorio eta asmo bakarrerako, Bordelen, 2014ko Urriaren 31n.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria

Maria Aitzpea Goenaga Mendiola

Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria

Pantxoa Etchegoin

Le Rocher de Palmer-eko zuzendaria

Patrick Duval